



COVID 19aren krisi sozial eta ekonomikoak **kalteberatasun handiko egoeran dauden pertsonak kolpatzen ditu bereziki**; horien artean, lekualdatutako pertsonak eta errefuxiatuak. Horregatik, aurten, larrialdi betean gauden honetan, indarkeriatik eta pobreziatik ihesean eta etxetik urrun aurrera ateratzeko borrokan ari diren pertsona guztiak gogoratu nahi ditugu. Haien azalean jarri eta elkartasun-zubiak eraiki nahi ditugu: haien bidea gure bidea da.

Horregatik, uztailaren 5etik oinez ibiltzera gonbidatzen zaitugu, lekualdatutako pertsona eta errefuxiatuekiko elkartasunean, eta [ospitalitate-kanpainak luzatu dituen 10 proposamenak](#) bete daitezela eskatzeko.

Beraz... bildu zure jendea, oinetako erosoak jantzi eta jarri martxan!

HONA HEMEN GONBIDAPENA:

1. **Taldea bildu:** Ibili nahi duen jende taldea bildu (15 lagun gehienez). Zure senideak, lagunak, bizilagunak ... izan daitezke.
2. **Ibiltzearen zentzua ulertu:** ibili aurretik, hamar proposamenak edota kokatze laguntzen dizuen testu bat elkarrekin irakurri. Guk honakoak proposatzen ditugu:
 - [Bertsio laburra](#): Cristianismo y Justiciako 196. koadernoko lan gida (gaztelaniaz).
 - [Bertsio luzea](#): de la Hostilidad a la acogida, Miguel González, Cristianismo y Justiciako 196. Koadernoa (gaztelaniaz).
 - [Ikus-entzunezkoa](#): Miguel González: de la hostilidad a la acogida (gaztelaniaz)
3. **Gustuko duzuen ibilbide bat egin:** zuen herrian bertan, inguruko mendi batean, hondartzan... Indarrean dauden osasun arauak jarraitu (segurtasun distantzia, maskaren erabilpena, eskuen garbiketa...).
4. **Gure kanpaiarekin bat egin:** egiten ditugun [10 proposamenak](#) bete daitezela eskatzeko:
 1. Aukeratu hitz bat (nahi duzuna) edo bilatu hitz bat egiten ditugun [10 proposamen](#)en artean.
 2. Hitz paper batean idatzi, zure oinetakoen ondoan jarri, eta atera argazki bat.
 3. Igo ezazu argazkia zure sare sozialetara **#SeguimosCaminando** eta **#BidezOinez** hitzekin.
 4. Ibiltako kilometroak batu itzazu beste talde batzuek egindakoei, Hospitalitate Bidaia webgunean egongo den formularioaren bitartez (uztailak 5etatik aurrera).